

AGUR PACHIKU

¡Len gibela eta oraiñ!....

BIYOTZA gaisotu zait euskarari diyotan amoriyuagatik! ¡Au biziera biurra! ¿Bañan zer gertatzen da nere barrunen? Amatiga zaite biyotza, bururik gaisotu bañan len.

¡Len gibela, eta orain biyotza! ¿Noren chanda izango ote da urrenguan? ¡Ez dakit, ez dakit; baña Jaunaren borondatia osa dedilla!Ai, ama. a...ma! ¿Utsegite aundiyen bat egiñ al det zurekin? Ala bada, barka zayozu zure mende errespeto aundiz, zure oñetan belaunikatzen dan seme biyotz mugikor oni. Ez det egingo geyago uste gabeko chirristaren bat egiten ez badet. Etzaitut utziko, eta ez det aldegingo zugandik, sentsuz argiro irauten detan artean. Zure semea naiz, eta orain eskuetan dabilkidan luma euskarazko arraskalaria da.

¡Miñ det oñaze daukat,
au barrengo sua!
irakiten arki zait
biyotz odoltsua;
¡O ama, nere ama!
jatorriz gozua,
zuretzat daukat nere
bizitza osua.

¡Baiama,bai! Etzaitut utziko, bañan nere euskarazko eginkisun edo egintza guztiyak, jasuak izango dira kontu aundiz leku beresi batera, nere borondatez, ez geyago argitaratzeko.

Agur Pachiku.

JUAN IGNACIO URANGA.